

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### OYON-OIONGO UDALA

#### Jendaurrean jartzea JEZaren 2019ko errolda

Jarduera ekonomikoen gaineko zerga ordaindu behar duten zergadun guztiei jakinarazten zaie iragarki hau argitaratzen den egunetik aurrera zerga horri dagozkion zergadunen errolda ikusgai egongo dela, ondoren adierazten diren tokietan: Kasuan kasuko udaletxean: udal esparruko kuotak.

Zergadunek egoki jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ahal izango dizkiote, errolda jendaurrean jarri eta 15 egun balioduneko epean, zerga kudeatzen duen erakundeari edo, bestela, Arabako Lege eta Administrazio Erakundeari. Erreferentzia alfanumerikoa: Bo180702AEk.

Oion, 2019ko uztailaren 2a

*Alkatea*

**EDUARDO TERROBA**